

# BERRIGARA

zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, maiatzak 27



**Izarrak  
eskuekin  
ikutu nahian**

MINIA  
NORMALA  
LUJOZKOA  
LUJO HAUNDIKOA

**KIÑU**  
**ARCO**  
**IRIS**  
DE KODAK

**2 X 1**




12 + 12  
ARGAZKI  
963 pzt.  
24 + 24  
ARGAZKI  
1.551 pzt.  
36 + 36  
ARGAZKI  
2.139 pzt.

BARRENKALE 25 76 59 05

BEZ



**GUIPUZCOANA**  
*Paketean garraio eta banaketa*

**BERGARA**  
San Juan Erreka. Elgetara bidea.  
Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

## Z E R B E R R I D A ?

## ROSA BAÑUELOS

## Emakundeko monitorea

- Zer lortu nahi da asteazkenean Bergaran egon den informazio bulegoarekin?

- Emakunde ezagutzera eman eta herrietara hurbiltzea da helburua. Maiatzaren 2an hasi eta ekainaren 3ra bitartean Euskal Autonomi Elkarteke hainbat herritan izango gara Emakunderen eskaintza zabalduz.

- Zer eskaintzen du Emakundek?

- Ba, besteak beste, aholkularitza juridikoa, ikerketa lanak ere egingen dira, administrazio barnean emakumearen egoera aztertu, erakundeekiko lankidetzaz bultzatu, ... Beti ere emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko.



- Zenbat jende hurbildu da?

- Gutxi, 10 bat emakume. Gehienetan gainera beste erakunde batzutan lanean ari den jendea da, materiala edota dirulaguntzak eskatzeko edota aldizkariaren harpidetza egiteko. Bestela, laguntza juridiko eske ere etorri da bat.

**"Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatu nahi dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

## Kiroldegiko mantenimendu arduradun lanpostua desagertu

Udaleko Gobernu Batzordeak Kiroldegiko mantenimendu arduradun lanpostua desagertzea erabaki du, honek betetzen zituen funtzioak Udal brigadak edo dagokion gremioak egingo dituelarik aurrerantzean. Kiroldegiko mantenimendu arduraduna izan den Mikel Zubizarreta orain igerilekuetako mantenimendu arduraduna da. Bestalde, garbitasuna eta goizetako kontrola kontratazio zuzenaren bidez subkontratauko da, astegunetan 7etatik 10etara eta 7etatik 10etara eta 15.30etik 15.30etara gainontzeko egunetan.

E S A N  
D U T E

"Deba ibaia garbi bat aldarrikatzeko asmoz eta helburuz antolatua genuen baltsa lasterketa. Eta urtez urte helburu hori izaten jarraitu dugu baltsa lasterketa prestatzerako orduan, Deba ibaiako kutsadura izugarria baita. Jadanik ibaia kolore gutzietakoa ikusi dugu"

**ESTEBAN LAZKANO**  
Eguzkiko kidea  
EGUNKARIA

"Arkeologoen itxaropena Bergarako harresien arrastuak aurkitzen oinarritzen zen, Bergara bezalako XIII. mendeko hiriek harresi defentsiboak izaten baitzituzten garai hartan"

**MERTXE URTEAGA**  
Arkeolaneke  
Zuzendaria  
ARIZ-ONDO

"Bergarako zalegoa taldea animatzen saiatu behar da. Zentzu honetan Oñatiko kasua aipatuko nuke. Azkoagainen, aurkako ekipoa ahulduta irtetzen da"

**JAVI PEREZ**  
Bergara K.E.ko futbol entrenatzailea  
ARIZ ONDO



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



**PHILADELPHIA**  
Ostirala: 22.30  
Larunbata: 17.00, 19.00, 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.  
Astelehena: 19.30.  
(Ikuslearen Eguna).



**BABY BLOOD**  
Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Jonathan Demme** zuzendariak IHESA izateagatik bere lanpostua galtzen duen abokatu baten (**Tom Hanks**, *Oscar*arekin sarituta) kasua azaltzen digu. Diskriminazioaren aurka gogor borrokatu dute berak eta **Denzel Washington** eta **Antonio Banderas**en pertsonaiek.

▼▼ Beldurrezko filmeen zikloarekin jarraituz, zine frantzesaren txanda oraingo honetan. **Alain Robakek** zuzenduta, **Emmanuelle Escourrou**, **Jean Francoise Gallote** eta **Christian Sinniger** ageri dira errepertoburuan. Guztiek ere bidaia benetan beldurgarria eta istripuz beterikoa proposatzen digute...

## Deiak

▼ **Gorka González**en koadro erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Bertso afaria** Antzuolako Olalde elkartearen larunbatean, hilak 28, 9etan, Peñagarikano eta Mendizabalekin.

▼ **Pailazoak**. Takolo, Pirrutz eta Porrotx larunbatean 16.30etan Antzuolako Plazan.

▼ **Mendi irteera** Karriara igandean, hilak 29, Pol-Poleko gazteekin. Irteera 8etan Pesan.

## Ogia

▼ **Igandea 29:** Bolintxo.



### GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 28:** Puy/Morales.
- ▼ **Igandea 29:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 30:** Guallar/Español.
- ▼ **Asteartea 31:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 1:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 2:** Camacho.
- ▼ **Ostirala 3:** Puy.

# INFORMATIKA

• **PROGRAMAK:** Word eta QuarkxPress

• **NOIZ:** ekainak 4, 11, 18 eta 25

**ORDUTEGIA:** larunbatetan 10etatik 13etara

**IZEN EMATEA:** maiatzaren 31a baino lehen JARDUNen (76 08 19)

**PREZIOA:** • Bazkide direnentzat, 6.500 pzta.  
• Ez direnentzat, 7.500 pzta.

# MACINTOSH

# IKASTAROA

ANTOLATZAILEA:  
**JARDUN**

**Musika  
Eskolako**

# UDABE

# KONTZERTUA

*Igandean, 12.30etan,  
Espoloian*

**Igandean** Bergarako Musika Eskolaren Udaberriko Jai Kontzertua izango da Espoloian. Goizeko 10.30etan Gazteen Bandarekin kalejira izango da, 12.30etan Musika Eskolako talde ezberdinen kontzertua Espoloian eta ondoren herri bazkaria Espoloian bertan. Amaitzeko, bazkalostean, Ibaiak taldearen eta jazz taldearen emanaldia iragarri da.

Eguerdiko kontzertuan zehar Maria Jesus Rekalde, Begoña Rekalde eta Amparo Navarriori omenaldia eskeiniko zaie. Hiru monja hauek Musika Eskola sortu zenetik irakasle lanetan jardun dute eta orain gutxi jubilatu egin dira. Igandean egindako lanaren aitopena jasoko dute.

Kontzertuaren egita-



Musika Eskolako talde ezberdinek euren errepertorioa eskaintzeko aukera izango dute domekan.

raua honako hau izango da: Angel Agirianok zuzentzen duen Gazteen Bandak "Fra diabolo" (Auber) eta "Indiana Jones" (John Williams) joko ditu, Akordeoien Orkes-

tak (Maria Jesus Ugalde zuzendari) "Romanza para Helena" (K. de Wolf) eta "En un mercado persa" (Katelbey) eta ondoren, koroarekin batera (Cristina Larrañaga zuzendari), "El danubio azul" (J. Strauss). Azkenik, Orkestra Sinfonikoak "Sinfonía para gran orquesta" (J.C. Arriaga) eta "Danzas sinfónicas" (L. Bernstein) eskeiniko ditu Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzape-

an.

Alberto Laskurain Musika Eskolako zuzendariaren hitzetan, "honako hau udaberriko kontzertuaren seigarren edizioa izango da eta nagusiki talde ezberdinen lana plazaratzeko sortu zen, musika kalera ateratzeko". Igandeko kontzertuan 150 musiko eta beste 100 bat abeslarik parte hartuko dute eta herri bazkarian, 300 bat lagun biltzea espero da.

**Igandeko kontzertuan 150  
musikari eta beste 100  
bat abeslarik hartuko  
dute parte**

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

**BERGARA**

*Paper pintatuak - Pinturak*

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**Baimenik gabeko zikinkeria? Ez, eskerrik asko**

Elkarte, talde, kolektibo, erakunde guztiek euren ideiak zein mezuak adierazteko beharra eta eskubidea dute eta funtzesko zein aliena ezinezko eskubide demokratiko batez babesturik daude, alegia, adierazpen askatasunaren eskubidea.

Gure Udalak, aldiz, adierazpen askatasuna eta herriaren garbitasuna batera eman ahal daitezen neurriak hartu beharrean, debekua eta zigorra, arau zehatz baten tresna nabarmenenak, martxan jartzen ditu.

Arau honek aplikatzarekoan diskriminazio nabarmena igartzen da, azken hilabeteotan larriagotzen ari dena gainera. Apiril eta maiatzean zehar eginiko "azterketatxo" baten bidez honako hau ziurtatu genezake: kalean zehar kartel gehien jarri duen erakundea Udaletxea dela (beraiek antolatutako ekintzak edo lagundutakoak eduki ditugu kontutan). Ez dago esan beharrik kartel guzti hauek hurrengo egunetan ere gure kaleetako hormetan jarraitzen zutela.

Ez digu balio esatea: "baimena duten kartelak jarri daitezke, aldiz baimenik gabekoak ez".

Bestalde garbitasun aitzakia merke eta faltsua dela uste dugu, bestela azalduko diguzue: zergatik zikintzen dute gehiago baimenik gabeko kartelak?

Bergarako Udaleko Gobernuak (PNV-PSOE) zentsura politikoaren makina martxan jarri du, gero alkate jauna etorriko zaigu "jaietan jai eta utzi aldarrikapenak beste aukera baterako".


Ba ez jauna, guretzako egun guztiak dira berdin, horregatik adierazpen askatasunaren alde gauden guztiok larunbat arratsaldean zita bat eduki genuen gure herriko kaleetatik zehar. Ea ba hemendik aurrera guztion esku-bideak kontutan hartzen ditugun.

**BI ZIKIN (ESTEBAN LAZKANO, AITOR ARANZABAL)**

**Tiira biraka**



**JULIAN EZENARRO**



◆ **Herri Batasuna**

Larunbatean Donostian izango den manifestazioa joateko 15.15etan autobusak aterako dira Frontoitik. Asteartean, berriz, kotxe karabana izango da 18.30 Behoko Estaziotik Oñatin 19.30etan dagoen mitinera joateko. Hizlariak: Olarra eta Itziar Aizpurua.

◆ **Eurodisney**

Diputazioak 65 urtetik gorakoentzat Paris-Eurodisneyra joateko bidaiak antolatu ditu. Lehen txandarako izena emateko epea ekainaren 2an bukatzen da. Informazio gehiago: ☎ 900 43 43 43.

◆ **EAJren bulegoa**

EAJk gogoratu egiten du Hauteskunde Europarrei begira, bulego informatiboa zabalik duela Batzokian 12etatik 13etara eta 7etatik 9etara.

# Helduentzako heziketa

## Matrikula epea zabalik HHI-EPA eskolan

Bergarako Helduen Heziketarako Eskolak datorren ikasturterako matrikula epea zabalik izango du ekainaren 1etik 30era eta irail osoan zehar. Eskola honek irakurtzen eta idazten ikastea, norberan kultura orokorra zabaltzea edota eskola ziurtagiria eta eskola graduatua lortzeko aukera eskeintzen du. Klaseak urritik ekainera bitartean izaten dira, txanda ezberdinak hartzeko aukera dagoelarik: goizez 9.30etatik 11.30etara eta arratsaldez 3retatik 5etara edo 6etatik 8etara.

Miren Gurutze Arana bertako ikasketa buruak adierazi digun bezala, "16 urtetik gorako edozein pertsona etor daiteke, bazi irakurtzen edo idazten ez dakien jendetik eta interes butساتatik gauza berriak ikastera datozenak arte. Eguneroko gau-



Matrikula epea irailaren 30era arte izango da zabalik.

zetaz aparte 3 bilabetetik behin sukaldaritza, fotografia, zeramika ... tailerrak antolatzen ditugu, jendeak ezagutu eta gero interesa badauka bere kontu lantzeko".

Aurten 100 ikasle aritu dira HHI-EPAko maila ezberdinetan eta Miren Gurutzeren hitzetan, "ez dira gazteak bakarrik, urte media 30ekoa da

baina datu bitxi moduan 68 urteko emakume bat ere egon da gurekin. Normalean emakumeak etortzen dira gehiago, interes gehiago azaltzen dute".


Ikasketak dohainekoak dira eta argibide gehiago Irizar Jauregiko bigarren pisuan edota 76 44 52 telefono zenbakian jaso dezakezue.

## Ortonovokoak Bergaran

Atzo osteguna Ortonovoko (Italia) 20 bat artista heldu ziren gure herrira. Gaur arratsaldeko 7etan Kultur Etxean erakusketaren inaugurazioa egingo da eta ekainaren 12ra bitartean italiarren 20 eskultura eta 8 bat koadro ikusi ahal izango dira. Gaur Altsasu elkartearen afaria izango dute eta bihar larunbata Arrasateko pintoreekin batera Loiola eta Donostia bisitatuko dituzte. Igandean, berriz, Musika Eskolarekin batera Espolotan bazkalduko dute Udaberriko Kontzertua entzun eta gero.



# BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



## Begararrak nagusi dantza txapelketan

Igandean Novedadesen Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketa jokatu zen eta Maite Lazkano eta Jon Aranburu bikote begararrak laugarren aldiz Euskadiko Txapeldun izatea lortu zuen. Azpitarte anaiarrebak 2. geratu ziren eta 3. postua, berriz, Xabi Egidazu eta Irantzu Lizarralde begararrenak izan ziren. 19 bikotek parte hartu zuten kanporaketetan eta arratsaldeko finalera 10 iritsi ziren. Jonek eta Maitek txapelketa irabazteaz gain, jantzi eta neska eta mutil onenaren sariak irabazi zituzten.



## Deba Ibaian zehar...

6 partaide izan ziren aste-artereko baltsa jeitsieran. JARDUNeko Gazte Taldeko *tripulazioak* (Josu Arana, Xabier Alberdi eta Asier Gabilondo) irabazi zuen, bigarren Oier Bolibar eta Xabier Zabala sailkatu ziren, hirugarren Esteban Lazkano eta Aitor Aranzabal, laugarren Paulo Elkoro eta Mikel Ibarzabal, bosgarren Oihana Beristain eta Mainer Larrañaga eta



azkenik, Iñigo Eguren eta Jaime Acedo. Igandean,

bestalde, piraguismo erakustaldi ikusgarria burutu



zuten Beti Busti elkartekoek.



# PINTURAS BERGARA

# PB

Aranerreak, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO  
PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...





## 87 haur pintura eta marrazki lehiaketan

Larunbateko marrazki eta pintura lehiaketan honako gaztetxo hauek izan ziren sarituak: 8 urtetik beherakoetan **Malen Gurrutxagak** irabazi zuen lehen saria, **Garikoitz Arribasek** eraman zuen bigarrena eta **Unai Aranzabalek** hirugarrena. 9 urtetik 11ra bitartekoan, **Ohiane Gurrutxaga** izan zen garaile, **Mireia Carretero** bigarren eta **Iosu Gonzalez** hirugarren sailkatu zen. 12 urtetik 14 urtera **Xabier Mondragonentzat** izan zen lehen saria, **Beñat Eguren** bigarren gelditu zen eta **Ion Baika** hirugarren. Guztira 87 partaide izan ziren.



Pintura lehiaketan, berri, 8 partaide izan ziren 12 urtetik 14ra bitartean eta **Eiluska Zabalok** eraman zuen lehen saria **Xabier Es-**

**kibel** eta **Irene Abaden** aurretik. Argazkian, larunbat eguerdian, lehiaketa ostean, egin zen sari banaketa

## LITERATUR LEHIAKETA

Igandean IX. Literatur Lehiaketako lanak banatu ziren. Hona hemen irabazleen zerrenda:

### Lehen taldean:

1. Maite Bolibar.
2. Aitziber Plazaola.
3. Izargi Vega

### Bigarren taldean:

1. Uxue Amasorrain.
2. Larraitz Madariaga.
3. Mikel Alvarez.

### Hirugarren taldean:

1. Mikel López.
2. Leire Jiménez.
3. Eneritz Muguruza.

### Laugarren taldean:

1. Maite Blanco.
2. Mikel Larrañaga.
3. Karlos Aldai.


### Bosgarren taldean:

1. Rafi Quintana.
2. Marta Gómez.
3. Oier Bolibar.
4. Ion Sanchez.

Akzesitak: Aitor Gabilondo, Gorka Nin, Iñigo Muamendiaraz, Noelia Aldai eta Xabier Zabala.

### Seigarren taldean:


1. Iosu Alberdi.



## Patin eta patineteak

Asteartean JARDUNeko Gazte Taldeak antolatutako patin lasterketan 7 partaide izan ziren eta batek bakarrik ez zuen karrera amaitzerik izan.

Aitzol Mujikak lortu zuen garaipena, Unai Garmendia, Jose Mari Larrañaga, Itxaso Mendizabal, Sergio Romero eta Danel Gorrotxategiren aurretik.



## ETXAGI

Jatetxea  
Afariak-Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

KALEGOI, 19

76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA

BERGARA

•Zoruen kutxilatutako eta barnizaketa•

## SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



## Arzak, Argiñano, Subijana, Lasa e.a.en ondorengoak

Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketan 7 elkartek hartu zuten parte, ea nork gertatzen zuen bakailaurik onena. Iñaki Olabarria **Murinondo** elkarteko kideak irabazi zuen, bigarrenak **Jaolatza** elkarteko **Jose Mari Markiegi** eta **Rafael Olañeta** izan genituen eta hirugarrenak **Pertxako Miguel Lazkano** eta **Jose Mari Pérez**. Koldo Lasa, Valentin Moreno arrasatearra eta Juan Jose Arriaran "Egino"k osatzen zuten epaimahaia.



### • Xakea

Larunbatean jokatu zen Xake Partida Azkarren Euskadiko Txapelketan, 11 talderen artean, Gipuzkoako Fomento Cultural taldeak irabazi zuen, Peña Rey Ardid (Bizkaia) eta C.D. Eibarren aurretik. Igandean, berriz, Espainiako Iparraldeko Xake Azkarreko txapelketan, Oviedoko Unibertsitateak izan zen garaile, Peña Rey Ardid eta Marlaxka euskal taldeek 2. eta 3. postuak eskuratuz. Jokalari onenak Bronstein errusiarra eta Alfonso Romero kataluniarra izan genituen.

### • Retegi-Elkoro

Retegi eta Elkorok osatutako bikotea nagusitu zen Pentekoste jaietako Pelota Txapelketan, finalean Eugi eta Errastiri 22 eta 19ko emaitzaz irabazi ondoren. Elkoro eta Retegik semifinalean 22 eta 14 irabazi zieten Urionaguena eta Zezeagari eta Eugi eta Errastik, berriz, finalera iristeko Etxaniz eta Tolosa gainditu zituzten, 22 eta 13.



## Brusak, euskara eta umorea

JARDUNeko Gazte Taldeko Brusa lehiaketan, 14 urtetik beherakoetan, neskatxa hauek irabazi zuten goiko argazkian eta ondoko esaldiari esker: "Gure blusia moduan euskaria loratu deila". 14 urtetik gorakoan artean, berriz, bi talde berdinduta geratu ziren lehendabiziko postuan. Goian agertzen direnek honako esaldi hau aurkeztu zuten: "Jaietan, edaria tabernetan eta euskara gure abotan" eta besteek, berriz, "Ze die jaixak euskara barik? Ezebez. Eb?? Ezebez. Aaahhh!!!". Guztira 11 talde aurkeztu ziren.

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA



**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 63



## TXEKORKETA IGANDE HONETAN

Pazkuetako iganderako iragarrita zegoen txekorketa, eguraldi txarra zela medio bertan behera geratu zen. Zezenzaleak taldeak, txekorketa igande honetan antolatzea erabaki du. Sarrera erosita izan baina igandean txekorketara joan nahi ez dutenei dirua itzuliko zaien. Hortarako, larunbatean 11.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 19.00etara Beheko Estazioko zezen plazara hurbiltzea besterik ez dago. Itzulitako sarrerak berriz ere salgai jarriko dira.




## Jaietako beste gertaera batzuk

- ✓ Ostiral gauean ezezagun batzuk Masterrekan papera, kartoiak eta pilak batzeko dagoen **kontenedorea** erre zuten. Irizar Ibilbidea eta Zurradero kaleko kontenedoreak bolkatuta eta San Pedroko **semaforoko kaja** ere hautsita azaldu ziren. Bestalde, **merkatu berriko** 13 kristal apurtu dituzte jaietan.
- ✓ **Adierazpen Askatasunaren Aldeko Batzordeak** kalejira bat egin zuen larunbatean. Herriko hainbat kolektibok beren ideiak azaldu ahal izateko eskubidea aldarrikatu zuten.
- ✓ Igande goizean, 10.30etan, ondorio larririk gabeko **istripu** bat izan zen Kruz Gallastegin. **Garbileko** furgoneta batek aurreko kotxe baten kontra txoke egin zuen eta honen aurretik zihozan beste bi kotxeek ere kolperen batzuk izan zituzten. Garbileko gidariak zauri arinak jasan zituen.
- ✓ Astelehenean, 14.45etan, "ETA militarra"ren izenean **bonba mehatxua** jaso zen Udaltzainetan, 15.00etan zezen-plazan bonba batek eztanda egingo zuela esanez. Ertzaintzak eta Udaltzaingoak beharrezko neurriak hartu eta gero ez zuten ezer susmagaririk aurkitu eta normaltasuna itzuli zen Beheko Estaziora.
- ✓ Asteartean bergarar **preso** politiko bakoitzaren familiar batek herriko hainbat koadriletako painuelu bana jaso zituen. Ondoren Ainhoa Agirreazaldegri aritu zen bertsoan eta Amaia Agirrek, berriz, aureskua dantzatu zuen.



# JAKIN

AKADEMIA



## UDAKO INFORMATIKA IKASTAROAK (UZTAILA-IRAILA)

- MS-DOS - WORD PERFECT 6.0
- MS-DOS - LOTUS 1-2-3
- WINDOWS - WORD
- WINDOWS - EXCEL
- KONTABILITATEA
- MEKANOGRAFIA ORDENADOREZ
- AUTOCAD

## TALDE MURRIZTUAK

SANTALAITZ, 4  
20570 BERGARA  
☎ 76 00 68

BULEGO ORDUAK:  
10.00.-13.00. BERGARAn  
16.00.-19.00. ELGOIBARren

ERROSARIO KALEA, 25 1  
20870 ELGOIBAR  
☎ 76 08 95

**LANGABETU ETA IKASLEENTZAT ERDIPREZIOAN**

**U**dal Euskaltegiak lehen pausuak Goiko Kondeko egoitzan eman zituen eta 10 urte hauetan hiru egoitza ezberdin ezagutu ditu. Orain euskaltegia Zabalotegin dago, lehen San Migel patronatua zegoen lokaletan. Maria Dolores Lete, hasieratik irakasle moduan aritu dena eta gaur egun euskaltegiko zuzendariak adierazi bezala. *"Hasieran eskurtekoak oso oso murriztak ziren. Datu bat esango dizut, hasi ginenean ez geneukan fotokopiagailurik, ezta idazkaririk ere. Material didaktikolari dagokionez, ez zegoen gaur daukagunarekin konparatzerik. Gaur egun material aldetik ondo hornituta gaude".*

Hasieran lau irakasle hasi ziren eta ikasturte berean, ikasle kopuru handia zela eta, beste lau ordukako hartu behar izan zituzten. Orain, eskolak ematen 15 irakasle dabilta eta ikasle kopuruari dagokionez hasierakoa bikoiztu egin da eta azken urteetako gorantzako progresioak jarraitzen du. Lehen aipatu dugun bezala, euskaltegiak egoitza ezberdinak ezagutu ditu eta badirudi oraingoa betirako izango dela. *"Zabalotegikoa toki aproposa da. Irizarren izan ginenean kabidu ezinean ibiltzen ginen, eta Bidekurutzetan gelak ez ziren batere egokiak".*



Maria Dolores Lete, Euskaltegiko zuzendaria.

# 10 urte euskara erakusten

**Pazkuak pasatu dira eta herria biharamun orokor batean murgilduta dagoen bitartean Udal Euskaltegiak bere 10. urtemuga ospatzeko ekitaldi ezberdinak antolatu ditu. Horri buruz hitz egiteko eta Euskaltegiaren gorabeheren inguruan jardun dugu Maria Dolores Lete bertako zuzendariarekin.**

Euskaltegiak eskaintza zabala du, bertan alfabetatze eta euskalduntzeko maila guztiak EGAraino

ematen baitira. Honekin batera, egunean 5 orduz ari diren irakaskuntzan lan egiten duten profesio-

sionalekin osaturiko taldeak, administrazioak bideratzen dizkien langileak eta enpresa munduan

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gupil erosi eta 2 ordaindu!!**

## Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A  
U  
T  
O  
A  
K

## LARRAÑAGA eta ZUBIA

### Banatzailak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

egiten ari diren esperientzia etabar ere aipagarriak dira.

**"Ikasleak gustora"**

"Orokorrean ikasle eta irakasleen arteko harremanak onak dira. Gu horretan abalegintzen gara, hemen irakaslea ez dago estraduan" dio Letek. Material didaktikoari dagokionez HABEk argitaratzen duen material guztia jasotzen dute, eta euskararen irakaskuntzan lanean diharduten beste hainbat talde edota erakundek argitaratzen duen materialaz ere baliatzen dira. Horretaz gain, berez didaktikoa ez den materiala, hau da, ETB, ARGIA, BERRIGARA,... etabarretatik jasotzen den gaurkotasunez beteriko materiala, erabilera didaktikorako egokitzen dute. Estadistikek aditzera eman dutenez Deba Garaian euskara dakitenen kopuruak gora egin du. Leteri, horrenbeste urte euskara irakasten eman ondoren, gure herrian euskararen erabilera gora ala behera egin duen galdetu diogu. "Ni nabiko zirkulo mugatuan mugitzen naiz, esate baterako gauzez ez naiz tabernetan ibiltzen edo ez dut ezagutzen gazteen artean erabiltzen den. Esaten dutenez mehoratu egin da, pentsatu nahi dut zertxobait hobetu dela. Ikastola ere hor dago

eta horrek bere eragina du. Guk geuk, erabilpena bultzatzeko hainbat jarduera puntual antolatzen ditugu: ikasleekin irteerak, jaialdiak eta horrelako gauzak".

**"Saiatzen denak, ikasten du"**

Asko dira euskara ikasten aritu direnak eta utzi egin behar izan dutenak. Euskara beste hizkuntza batzuk baino zailagoa dela ere entzun izan ohi dugu, baina Letek hori ez dela egia argi du. "Euskara ikasteko, beste edozein hizkuntza bezala, dedikazio bat be-

har da. Bertako hizkuntza izanda, minimo bat eskatzen da. Kurioxo samar bitzegin eta idazteko lain gutxienez. Ez da beste hizkuntza arrotzen moduan. Nik ingelesa jakin dezaket lantegira etortzen diren katalogoak ulertzeko beste edo atzerriko jendearekin barreman profesionalak mantentzeko eta agian nabikoa dut. Baina hemen euskaraz bizitzeko maila eskatzen da eta, beharbada, hortik etorri daiteke zailtasun kontzeptua".

10 urte hauetan euskaltegiaren eragina ukalezina da eta Letek dioe-

nez egunez eguneko lanaren etekina da hori. Halere, gauza guztiak bezala, oraindik hobetu daiteke eta horretan dabil-tza.

Ordutegiari dagokionez eskolak goizko 8etan hasten dira eta iluntzeko 9etan bukatzen dute. Eskaera betetzeko 15 irakasle daude eta ikasle goaren adinari dagokionez danetik dago. Azken ikasturteko estadistikei begiratuz gero, 16 urtetik 20ra bitartekoak %6a dira, 20tik 30erakoak %42a, 30etik 40rakoak %40a eta hortik gorakoak %12a. Bataz bestekoa 30 urtekoa delarik.



Udal Euskaltegiaren 10. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira astean zehar. Argazkian, horietako bat: "Hiru Truku" taldeak asteazkenean emandako kontzertua.

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
 LOS CAZADORES  
 Kafea da gure berezitasuna  
 Zubieta 26, BERGARA

**Iturkintz Berri**

**INSTALAZIOAK:**  
 Iturkintza  
 Berogintza  
 Gasa

Amillaga 1  
 (B pabiloia)  
 BERGARA

☎ 76 28 04

# Berrigazte

ikasleen

orriak

## barru-barrutik...

### POEMATXOA

Sinisten dut, ulertzen dut,  
badakit, espero dut, uste dut,  
entzun dut.

Sinisten dut maiteminduta  
zaudela.

Ulertzen dut guapoa naizela.

Espero dut mutil atsegina  
izatea eta zurekin  
ezkonduko naizela.

Uste dut neska arraroa  
zarela.

Entzun dut egunero goizeko  
seiretan kanposantura ni  
ikustera joaten zarela.

Badakizu nik lurperatzaile  
naizela eta zurekin ezkondu  
nahi dudala.

Entzun dut, uste dut, espero  
dut, badakit, ulertzen dut,  
sinisten dut

DAVID GARCIA

### IDAZLANAK ARQITARATZEA

Lan hau badagoela  
argitaratuta  
nik aterako diot  
edarra fruitua  
ziur ni nagoena  
eingo da famatua  
bestela izango da  
kriston frakasua  
kriston frakasua

Frakasuak dakartzan  
ondorio latzak  
nik bai moztuko ditut  
nire hamar behatzak.  
Ezin daitezke izan  
halako zehatzak.  
Bestela sartuko nau.  
Barrura ertzaintzak.  
Barrura ertzaintzak.

IÑAKI OLANO

### BARNE SENTIPENAK

Nire aurretik pasa zinen  
ez dakit zer izan zen  
sentitu nuena, baina,  
ezertan pentsatu gabe  
zure atzetik joan nintzen.

Zure begietako disdira  
disdira argi eta indartsua  
jarraitu ahal izan nuen  
baina azera biratzean  
galdu zintudan.

Zer egin ez nekiela  
nire barruan ahots batek  
ahots beldurti batek  
esan zidan:  
- Segi ezazu aurrera.

Milaka arazotan sarturik  
zu, berriz aurkitzearren  
baina azkenean  
aurkitu zintudan.

Momentu hartan  
zugana hurbildu nahi nuen,  
baina ezin,  
zurekin hitzegin nahi nuen  
baina ezin.  
Zer gertatzen zitzaidan?  
Non galdu zen  
nire barreneko ahots beldurti hura?

### AMAIA

Berner izeneko herri txiki batean, edozein egun normal bat zen, baina beraiek ere arazoak izaten zituzten, eta zeukaten arazoa indioekin zen, beno deitu deza-kegu gerra, indio eta zurien arteko gerra bat zen.

Herri honetan aita eta alaba bat batera bizi ziren baina alaba indioen alde zegoen, eta gerra bukatu zenean alabak indio bat ezagutu zuen eta harremanak izan zituzten. Hortik egun batzutara alabak pentsatu zuen indioarekin bizitzera joatea, orduan gau batetan aitari honela esan zion:

- Aita, gauza garrantzitsu bat daukat zuri esateko, badakit oso gaizki irudituko zaizula baina horrela da bizitza, indio bat ezagutu dut "Rostro palido" izenekoa eta berarekin bizitzera joan nahi dut.

Aitak oso gaizki hartu zuen alabaren erabakia eta etxetik bidali zuen.

Urte batzu pasa ondoren ezkondu egin ziren, seme bat eduki zuten "Pluma blanca" izenekoa. Tamalez, "Rostro palido" gaixotasun batez jota hil zen.

"Pluma blanca" k zortzi urte bete zituenean amak gehiago jasan ezinik bere bakartasuna, bere jaioterri- ra itzultzea erabaki zuen. Barrenera heldu zirenean bere aitak pozik ikusi zuen bera baina ez bere semea indioen arrazakoa zelako.

Aitak baldintza bat jarri zion alabari bere etxean bizi ahal izateko eta baldintza hauxe zen: sema adoptatutakoa zela esatea herriko jendeari. Amak onartu egin zuen.

# arrazakeriaren ondorioak

Eguneroko ekintzak ez ziren errazak izaten aitaren eta ilobaren arteko harremanak.

"Pluma blanca" k bere ama ikustearren saiatzen zen aitonarekin ondo eramaten, baina zaila izaten zen aitonak bere erara eraman nahi zituelako ekintzak, batzutan "Pluma blanca" baztertuz eta joz.

"Pluma blanca" ren amak eskatu zion bere aitari jarrerara hobe izateko bere semearekin, orduan aitona konturatu zen horrela ezin zirela ezertara heldu eta onartu zuen arrazismoaren eraginez jokatu zuela ordu- ra arte.

NAIARA

MURUAMENDIARAZ


**Bere aitak  
pozik ikusi  
zuen bera  
baina ez  
bere semea  
indioen  
arrazakoa  
zelako.**

# Museotara joateko ohiturarik daukazu?



**Silvia Romero**  
17 urte, ikaslea

Guxitan egon naiz, klasetik, ikas bidaietan... Bestela nere kontu ez naiz asko joaten, interesgarria iruditzen zaidan arren.




**Gorka Igartua**  
35 urte, langilea

Ahal dudan guztietan joaten naiz. Orokorrean danetariakoak gustatzen zaizkit. Ikusitako azkena? Gasteizeko mecano erakusketa.



**Alicia Oteiza**  
32 urte, langilea

Bidaietan eta ahalegintzen naiz museoak ikusten. Azkenaldian Londreseko Tate Gallery eta Madrileko Thyssen galeria gustatu zaizkit.




**Elias Garcia**  
19 urte, langilea

Ez, ez daukat denborarik. Baina parean tokatu ezkerro joaten naiz. Ikusitako azkena? Madrileko argizari museoa, lagunekin.



**Ines Arregi**  
66 urte, etxekoandra

Ez, ez naiz sekula egon. Oraindik ere hasi naiteke joaten baina...



**Anartz Unamuno**  
18 urte, ikaslea

Normalean ez naiz joaten. Ondo pentsatzen zait eta interesantea da baina... Ikusi dudan azkena, Madrileko argizari museoa

# Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5\_URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

**PHILIPS**



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100  
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,  
ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK,  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

**SONY**

TB, BIDEOAK, KAMARAK,  
HI-FI EKIPOAK,  
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96





## Jainkorik ez da!!

Horra hor bere barrua asaskatu nahiz edo norbaitek Santa Marinako elizako atean letra haundiz eginda utzi duen idazkuna: "Dios no existe".

Besterik uste duenik ere ba da, noski; hor, oso ezagun batzuk baino ez aipatzeko, Einstein edo Bergson adibidez. Gure idazkun egilea ordea ezezkoaz erabat sinistuta dago, antza, eta hori ozenki (bere buruz izkutatuz, hori bai) aldarrikatu nahi izan du.

Bestalde, nik neuk zerbait ez dela egiaztatzea ba dela egiaztatzea baino askoz ere zailagoa dela uste dut, eta Jainkoagan sinisten ez duten batzuk bere uste hori besteei erasotze-xedez aldarrikatzeko setak beti harritu izan nau.

Behin, Alemaniako hiri baten norbaitek Nietzsche-ren hitz hauek idatzi omen zituen: "Jainkoa hil da. Nietzsche". Norbaitek, gero, azpian beste hau erantsi zion: "Nietzsche hil da. Jainkoa". Bigarrena lehenengo baino askoz ere errazago egiaztatu daitekeelakoan nago.

Bainan, gainera, ni sorginik ez dela sinistuta nagoenez gero, zer esango ote luke gure idazkungileak ni bere etxera joan eta atean, "spray"-z egindako letra zakarrez, "Sorginik ez da" idatziko banio? Nere usteak adierazteko berak adinako eskubidea dudala behintzat ezingoa lidake ukatu.

**Josu OREGI**



## Zine generoak eta parranda gauak

Zineak genero ugari ditu eta horietako batzuk zure baitan bizi ditzakezu, edozein herriko jaietan.

1. Humorezko zinea: tabernak kolkoraino, bergarar eta kanpotar ugari, dantzarako musika eta alkohola. Bapatean, edozein aitzakiarekin, norbait gerturatzeko zaizu. Ene bada esaten diren lelokeriak! Humorezko zinea bai, baina Pajares eta Estesoren gizakoa.

2. Terrorezko zinea: Betiko leloa, tontakeria batzuen ostean: "Ni fulanito naiz, eta zu?". Ohizkoak diren bi muxu horiek ematera hurbiltzen zaizunean, gertatzen da metamorfosisa. Bapatean, zure irudimenean Drakulak dituen antzeko hortzak ikusten dizkiozu eta Zast! Zuzen zuzen lepora! Zer egin?

3. Zine belikoa: Kirolezko zinea deitzen den generorik ez dago, baina nik genero hau asmatu dut, izan behar diren erreflexuak ez baitira makalak. Ezkerretik eskumara eta eskumatik ezkerrera erabili behar dituzu zure baliabide guztiak, irudimenezko Drakula honek zure lepoa ikutu ez dezan. Futbolariak baloiarekin egiten duen bezala, edo tiro batez hil nahi ez duen gudaria bezala. Hiru aukera dituzu: zure burua bururatu gabe defendatu, gogor bururatu edo errenditu. Bakoitzak gustokoena aukera dezala.

Tira, laugarren genero bat aipatzea gustatuko litzaidake, erromantikoa hain zuzen, baina zorionez edo zoritxarrez ez dut maiz ematen denik uste, gainera tokirik ez dut Berrigarako orrialde honetan.

**Nora ASKARGORTA**

## MARGO ERAKUSKETA

Gorka Gonzalez Sañudo

## BASALOREAK

**NAHIKARI**  
Taberna

Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

## ARREGUI, E.M.



## ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK


Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



**Txuri urdin maitea...**

Realeko jokalariaik bisitari izan genituen asteazken goizean. Realekoek Agorrosinen entrenatu zuten eta Bergarako futbol zelaiaik aspaldiko sarrerarik onenarikoa izan zuen donostiarrek Salva Iriarteren agindutara (Toshack ez zen etorri) jokaturako partidutxoak jarraitzeko. Aitona batek López Ufarteren baloikada bat jaso zuen baina zartakoak, zorionez, ez zuen ondoriorik izan eta Ufartek barkamena eskatu zion. Jokalariek entrenamendu amaieran egin behar izan zuten benetako entrenamendua... baina boligrafoarekin.

ehundaka autografo sinatu behar izan zituzten eta **Kodro, Alkiza** eta **Carlos Xavier**ren sinadurak izan ziren gehien eskatu zirenak. Aranzabal bergararra ez zen Bergaran entrenatzen izan. Eguerdian **Pertxa** elkartearen izandako bazkarian, besteak beste, Luis Uranga Realeko presidentea egon zen. Entremesak, legatza, solomilloa eta postrea bazkaldu ondoren, Realak Donostiarako bidea hartu zuen.

**Ongi etorria**

Aurreko astean **Julian Tena** deportatu bergararraren emazteari, Maria Angeles Fernández de Retanari, ongi-etorria emateko, Senideak elkarteak antolatutako afari-merienda bat izan zen **Artatse** elkartearen. Bertan 45 lagun inguru bildu ziren eta Maria Angelesekin lagunengandik azken berriak jasotzeko aukera izan zuen, 11 urte baitzeramatzan Bergara etorri barik. Ekainaren 2an berriz ere bueltatuko da Panamara. Ongi-etorri!



Argazkian, erdian, ikus dezakezue Maria Angeles Fernández de Retana.

**BERGARA**  
**Karrozeria**  
 Txapa - Pintura  
 Zubieta, 46 BERGARA  
 ☎ 76 12 31

*Elena*  
 BIZKAIA ETORBIDEA      ARRASATE  
  
 ☎ 77 14 24



**Bizikleta eta mendia**

Pasa den maiatzaren 15ean Aranzadi Ikastolako 7. eta 8. mailakoentzat **Urkiola-Kanpazar-Bergara** mendi bizikleta ibilaldi bat izan zen. Guztira, 34 ikasle eta 15 pertsona nagusik (beraien artean Jon "Van Poppel"ek lan aipagarria egin zuen) bete zituzten ibilbideko 34,5 kilometroak. Lokatzez belarrietaraino geratzeak ere abantaila bat izan zuen: lokatzaren pisuak eraginda, Kanpazarretik beherantz azkarrago jeitsi omen ziren. Indurainek *Giroan* hauetako gaztetxo baten laguntza izango balu...

**Bikiak 90 urte**

**Bernardina** eta **Segunda Santorcuato** bergarar bikiek 90 urte bete zituzten ostiralean, maiatzak 20. 1904an jaio ziren Angiozarren eta urte asko zeramatzaten elkarrekin egon barik, Segundak Italian lan egin baitzuen hainbat urtetan. Bernardinak, berriz, 4 iloba eman dizkioten 4 seme-alaba ditu. Ostiralean Mizpirualde Egoitzan igaro zuten hain fetxa berezia. Zorionak bie eta eutsi osasunari!!



**Zertan dibardute ba?**



**Aitor Zabaleta** gidari bergararra 5. postuan sailkatu zen igandean Jaizkibelen jokatutako Europa eta Espainiako Mendi Kotxe Igoera Txapelketako proban, lehen txandan bosgarrena eta bigarrenen 4.a lortu ondoren. *"Bigarren txandan gauzak oso bestu izan ziren eta pena bat izan da gasolina eta elektronikak mailan eduki nituen arazoak izatea".* Aurten txapelketa irabazteko itxaropena dauka Aitorrek: *"Gauzak ondo badoaz lor dezakedala uste dut".* 7 proba dira denera (Bergaran urriaren 9an) eta burrengoa Andorran jokatuko da, horretarako kotxea puntuan jartzen ari naiz Lazpiurren".

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA  
"Erratzu"

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

**TENERIFERA!!**

**Bolu Gimnasioan** hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan. **ZATOZ !!**



# Irune Azpeitia

Irune Azpeitiak 26 urte ditu eta igeriketa monitore eta masajista ikasketak eginak ditu. Bergara K.E.ko futbol taldeko masajista izan zen 3 denboraldiz eta orain igeri ikastaroak ematen ari da pizinetan.

- Masajea hartu ala eman?
- Biak.
- Zein da masajerik onena?
- Burukoa.
- Gorputzeko parterik sensibleena?
- Hankak.
- Zein futbolistak dauzka hankarik politenak?
- Kodrok. Bergaran? Josu Aranak.
- Realeko entrenamenduan izan zinen?
- Bai.
- Futbolistarik gustokoena?
- Laudrup.
- Futbol taldeko masaje-emalea zinenean, entzundako gauzarik gogorrena?
- Zarautzen: "Qué hace una tía aquí?".
- Eta piroporik?
- Oñatin: "Morenaaaa".



*"Pizinak udan baino neguan gustatzen zaizkit. Pazkuetan astelehenean egin nuen parrandarik onena; ajeetarako lo egin eta deskantsatzea da onena. Masaje onena burukoa da eta futbolista bat aukeratzekotan, Laudrup"*

- Jokalariek denbora asko galtzen zuten?
- Ahal zuten guztia.
- Ur milagrosorik badago?
- Ez.
- Nerbiosoago zurekin ala arbitroarekin?
- Arbitroarekin.
- Puntuala zara?
- Normalean bai.
- Eskuko erlojurik erabiltzen duzu?
- Ez, toki askotan daude.
- Pizinak udan ala neguan?
- Neguan.
- Zenbat urterekin ikasi zenuen igeriketan?
- 4-5 urtekin.
- Igeriketa estilo bat?
- Braza.
- Pazkuetako ajeetarako, zer?
- Lo egin eta deskantsatu.
- Noiz egin zenuen parrandarik haundiena?
- Astelehenean.
- Eta gero zenbat ordu lo?
- 5 bat.
- Bakalau musika atsegin duzu?
- Ez.
- Udan lana ala oporretara?
- Lana.
- Kulturismoa egingo zenuke?
- Ez.
- Gorputz gihartsuak ala makalak?
- Ondo formatutakoak.

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

AGENTZIA: **J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH

UNIBER

HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**




**zumelaga**

**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## *Galde debalde*

**JOSE ITURBE**

Aurreko Galde Debalden Don Serafin Esnaola eta Emiliano de Iturraran apaizek orain dela gutxi plazaratu berri duten liburuaren izena galdetzen genizuen. Erantzuna: "**El clero vasco en la clandestinidad**".

**JOSE ITURBE**k jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **SANTO**sek emandako sari bikaina.

Zorionak **JOSE**ri eta besteek segi jokatzeko, ea hurrengoak suerte gehiago duzuen.

**SANTOS**  
**IRRATI-TB**

**SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA**

Koloretako TB, bideoa, soinua,  
elektragailuak, antenak, sukaldeak  
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA  
Tfnoa eta faxa: 76 26 10




**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16



JOSE ITURBEK jaso du aste honetan SANTOSEk emandako saria.



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUAK emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Egun hauetan aukera ederra eduki dugu garai bateko Erret Mintegia edo Real Seminario delakoaren fisika eta kimika eta zoologia arloko ondare bikaina ikusteko, museoen nazioarteko eguna ospatzen zela eta. Hainbeste mendetan zehar kopuru ederra bildu da bertan, izan ere erakunde bataren edo bestearen menpean historia luzea baitu etxe horrek. Orain UNED eta Aranzadi Ikastola dauden arren Dominikoak egon ziren hemen aurretik eta hauek baino lehen Euskal Herriaren Adiskideak. Aste honetako galdera hauxe duzue:

**Zein erakundek zuzendu zuen Euskal Herriaren Adiskideen aurretik Seminarioa deitzen diogun ikastetxea?**



\_\_\_\_\_

izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

# JESUS ARANZABAL

*"Ziklista zein pertsona moduan nerbiosoa zen Ocaña"*

Luis Ocañak pasa den astean bere buruaz beste egin zuen eta horrek Jesus Aranzabalegan eragin handia izan du. Aranzabalek Ocaña 17 urte zituenetik ezagutzen baitzuen eta horrezaz gain, berarekin batera korritzen ibili zen.

- Zure laguna izanda, inpresio handia hartuko zenuen albeste entzun zenuenean, ez?

-Haundia. Espainiako itzulian nola zebilen ikusi nuen eta ez nekien gaiso zegoenik. Espainiako itzuliaren ondoren sendagileek emaitza mediku batzuk eman zizkioten eta horren arabera bizitzeko hilabeteko epea ematen zioten.

- Ze harreman zenuen Ocañarekin?

- 1968 eta 69an Fagorren izan nintzen berarekin batera korritzen eta 1970etik 72ra BIC taldean elkarrekin izan ginen. Taldea 72an utzi nuen, baina harrezkero beti izan dugu harremana. Azkenengo aldiz iazko Euskal Bizikletan izan nintzen etapa bat jarraitzen.

- Zelakoa zen pertsona eta txirrindulari bezala?

- Ziklista oso ona izan zen. Baina oso nerbiosoa eta askotan karrera aurretik plan batzuk egiten genituen eta berak zuen karakter fuertegatik

apurtu egiten zituen. Karrerak askotan berak galtzen zituen, irabazteko zuen nahi horrekin. Pertsona bezala berdina zen. Laguntzeko prest beti zegoen, baina gero exijitu ere horrela egiten zuen.

- Berarekin horrenbeste urtetan izan ondoren anekdotarik izango duzu...

- Anekdotasko, orain momentuan ez zaizkit etortzen. Nik gehien gogoan daukatena, behin Vuelta Cataluña batekoa da. Etapa Premetik Puigcerdara zen eta lider Vitocchi zegoen. Hotelean esan ziguten karrera gogorra egiteko 10km falta zirenean aldapa gogorra zegoela eta. Baina irteera eman zuten eta Ocañak etapa hasi bezain laister ihes egin zuen. Metara bi kilometro falta zirela harrapatu egin zuten. Gero hotelean zarataka hasi zen ea zergatik ez genuen gelditu. Horrelakoak asko egin zituen.

- Hileta elizkizunetan ere izan zinen, ez?

- Bai. Jende asko izan zen. Korredore ezagunak Stablisky, Derrigade, Mercxk, Fuente, Errandonea... oso emozionantea izan zen.

- Merckx aipatu duzu, nola konpontzen zen Ocañarekin?

- Bai, urte batzutan gaizki konpondu izan ziren eta hitz egiteke ere izan ziren. Azkenean lagundu ziren.


- Esan ohi da, Ocañak Tour gehiago irabaz zitzakeela?

- Hori beti pasatzen dena da. Ocaña izan baltiz nerbio gutxiagokoa, trankilago, hotzagoa or-

duan ez zen Ocaña izango. Bakoitzak bere ezaggarriak ditu. Halere osasun aldetik nahiko ahula zen. Bi hiru egunetan euria egin ezker bronkiotatik gaizki geratzen zen.

- Ze lan egiten zenuen Ocañaren ondoan?

- Nire lana ihesaldiak kontrolatzea zen, Ocañari aholkuak ematea... Oso zaila zen, erasotzea pentsatzen zuenean berak nahi zuena egiten zuen.



Merckx, Fuente eta beste txirrindulari batzuekin batera, Ocañaren hileta elizkizunetan izan da Aranzabal.

**Kabutzia**  
ARRAINDEGIA  
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.  
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...  
**JOSEFINA**  
Espaloia 4, ☎ 76 35 38

**IGARO**  
✓ Kosmetika eta oparigaiak  
✓ Eder gela  
✓ Bio Solariuma  
Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**KIROL  
KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

• Preferente maila:

**Bergara-Euskalduna**

Igandea, 16.00, Agorrosin.  
(Aurretik omenaldia egingo  
zaio Iker Muruamendiarez  
pelotariari)

**LABEGARAIETAKO  
FUTBITO  
TXAPELKETA**

• Larunbata •

16.30: Errotagain-Mongatz.

17.30: Tokieder-Ogizun

• Igandea •

10.00: Ezinleike-Etxagi

11.00: OH Zerez.-H. Zamak

12.00: Angiozar-Usoa

13.00: Madura-Bildurbarek

16.30: Akort Ariz.-Uve B.

17.30: Nahikari Hool.-Ufala

**PELOTA**

- AFIZIONATUAK -

Elosuko Otaba Txapelketa

(Finalurrekoa)

Igandea, 11.30, Elosu.

Ostirala, 22.00,

Udal Pelotalekua.

- PROFESIONALAK -

• Goñi / Nagore (4 1/2)

• Arteaga eta Lasa III /

Urionaguena eta Tolosa

• Gabilondo eta Galardi /

Badiola I eta Errasti II



Bailarako 10-11 urteko haurrek zapatu arratsaldea primeran pasatzeko aukera izango dute.

**Eskola arteko 5. Olinpiada**

*Deba Garaiko 800 bat neska mutiko larunbatean Bergaran*

**Deba Garaiko** udal kirol zerbitzuek eta Gipuzkoako Diputazioak antolatuta, larunbatean Deba Garaiko Eskola Arteko 5. Olinpiada jokatu da Bergaran. Bertan Deba Garaiko hainbat ikastetxetako 5. eta 6. mailako 800 neska-mutil izango

dira, 4 laguneko taldeak osatuz. Arratsaldeko 3retatik 7.30ak bitartean herri kirolak eta gimnasia jokoak (minitramp eta ohe elastikoa) izango dira Ipintza Institutuan, Agorrosinen postak, errelebo lasterketak, ginkana, luzera eta altuera jautziko


probak jokatu dira, Ipintzan badminton, beisbola, arku tiraketa eta kroketa eta igeritokian, berriz, txirrista, sugea eta olagarroa jokoak egongo dira. Kirol talde bakoitzak ordubete izango du aipatutako kirol multzo bakoitza burutzeko.

**ATLETISMOA: Bittor Rodríguez garaile 100 metrotan**

Atletiko Zaleak taldeak parte hartu zuen Ordiziako Altamira Estadioan jokaturako atletismo probetan. Bertan, Bittor Rodríguezek lehen postua eskuratu zuen 100 m.ko proban, promesen kategorian 11 segundu eta 6 ehunenekorekin, Unai Osés bigarrena izan zen lehen urteko kadeteen 300 m.ko klasifikatze proban 40 segundorekin eta Gorka Martinek, kategoria bereko hirugarren postua lortu

zuen beste serie batetan, 41 seg. markatuz.

Bestalde, larunbatean 300 metro hesietan, Agorrosinen, Oskar Rueda lehena izan zen Gorka Arana, Gorka Martin, Iñaki Irigoien eta Karlos Aldairen aurretik. 50 m.tan ere Ruedak irabazi zuen, ondoren Iñaki Irigoien, Gorka Martin, Alex Alonso, Igor Oya, Gorka Arana eta Karlos Aldai sailkatuz.



**BERGARES  
MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, BERGARA  
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

**BELENGUA**  
Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

HARATEGIA - URDAITEGIA

**Sebastian Imaz**

Bildotsa, txahala eta oilazkoak

Harane Erreka, 1  
76 32 67 BERGARA



# Eskubaloia maila nazionalean

Bergara K.E.ko eskubaloiz sailak bigarren mailarako igoera lortu zuen larunbatean, Cajabilbao taldeari 19 eta 15eko emaitza irabazi ondoren. Bergararrak ia partidu osoan zehar izan ziren markagailuan aurretik eta amaieran alderik haundiena lortu zuten. Aitor Ibarra partiduko golegile nagusia izan zen, 9 golekin.



Jose txo Muniategi bere jokalariei aginduak ematen.

Jose txo Muniategiren taldeak partidu bat faltan (larunbatean azkena jokatu dute Arrasaten) igoera liga

irabazi du eta beraz hurrengo urtean orain arte jokatu duen kategoriarik gorenekoan izango

da. Bergararrak larunbatean Kiroldegian bildutako zaletuen laguntza eskertu nahi dute.

# Futbolari txapelak

Aranzadi Ikastolako nesken futbol taldeak 2 eta 0 irabazi zion Iruneko "Irun 3" orain dela 15 egun Ipintzan jokaturako partiduan. Partiduko bi golak Joana Aranburuk egin zituen eta emaitza honi esker Aranzadikoak Gipuzkoako Diputazioak eta Futbol Federazioak antolatutako Eskolen Arteko Txapelketako txapelak ditugu. Txapelketa liga erara jokatu da eta 4 taldek hartu dute parte. Argazkian Aranzadiko taldea (12-14 urteko neska) David Maestre

entrenatzailea eta Aitor loko arduradunarekin batera. Eraña eskolarteko futbo-



David Maestrek entrenatzen dituen neska Gipuzkoako Txapelak ditugu.

## KIROL EMAITZAK

### FUTBOLA

- Prefente maila: Pasajes 1-Bergara 0
- Lehen Erregionala: Bergara 3-Soraluze 0
- Lehen mailako jubenila: Bergara 1-Aldapetarrak
- Lehen mailako kadetea: Mutriku 0-Bergara 2
- 2. mailako kadetea: Intxurre 2-Bergara 1
- Lehen mailako infantila: Bergara 2-Pasajes 3

### ESKUBALOIA

- Senior mutilak: Bergara 19-Cajabilbao 15
- Jubenil mutilak: Urnieta 15-Bergara 36
- Kadete mutilak: Bergara 19-Mundaiz 15
- Kadete neska: Bergara 17-Ereintza 21

### SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak: Bergara 50-La Salle 87

### PELOTA

- Herri Arteko Txapelketa
- Inf: Bergara 5-Amezketak 18
- Jub: Bergara 22-Amezketak 8
- Sen: Bergara 12-Amezketak 22
- Deba Arroa Txapelketa
- Jub: Bergara 22-Eskor. 8

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

**Tomas Gezalaga**

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriadako pinturak
- Papela margotuak
- Mokatak eta tapizatuak

**Aldoka Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

**BOLINTXO**

**Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4 EIBAR  
☎ 79 63 42 ARRASATE



### *Pertxako jokulariak*

**E**lkarteen arteko mus eta tute txapelketan parte hartu eta irabazle izandako Pertxa elkarteko ordezkariak ageri zaizkigu argazki honetan. Finalak Lasaitokin jokatu ziren eta han dago aterata argazkia. Kontrarioak, Jubilatuetako ordezkariak.

**Ezkerretik eskumara, atzeko ilaran:** Jesus Ruiz de Azua "Kapaña", Migel Lazkano, Jose Ramon Madinabeitia, Inazio Alkorta "Jimi" eta Roman Gallastegi.

**Aurreko ilaran:** Pedro Egaña, Narciso Begiristain, Jesus Eguren eta Juanito Alkorta.

*Estepan Plazaola*



## IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskola honek zera jakinerazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa:  
 IRAKASLE ESKOLA ☎ 943 / 71 41 57  
 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)

**ETXEBIZITZA**

Pisua alokatzen da **Jacan**, herri-erdian. ☎ 76 43 98.

Garajea salgai Santa Marrinan. ☎ 76 34 31.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea (bi plaza) salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 52 55.

Zubiaurren pisua alokatzen da. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

Pisua alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Pisua amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarin. ☎ 76 36 69.

Pisua alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 11 89.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 31 49.

**DENETARIK**

Yamaha 600 motorra salgai. SS-4. 300.000 pzta. ☎ 76 49 43 / 17 64.

Kotxearen irrati-kaseta salgai (bi bafle). ☎ 76 37 29 (Martin).

Remolke-denda "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Errepiderako bizikleta (Vitus koadroa) salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 29.

Paseozko Torrot bizikleta salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Enkuadernatzeko prensa erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

BX-16 TRS kotxea salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

Montesa Cota 335 (SS-AF, 175.000 pta.) eta Vespa 200 (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Bilbon pisua konpartitzeko norbait behar da. ☎ 76 61 68 (1-2, 7.8.30).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Alfa Romeo 33 SS-AB kotxea salgai. ☎ 76 02 01.

Erabili gabeko Dr.Martens beltzak salgai. 38/5 zenbakia. ☎ 76 37 82.

Neska batekin edo birekin pisua konpartituko nuke. ☎ 76 27 30 (Arantxa).

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Game-boy bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

**LANA**

Makinaz edo ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 21 33 (Garbiñe).

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta ingeles klaseak (maila guztiak). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

Exeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 56 92.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak. ☎ 76 50 67.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 26 73.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke (esperientzia). ☎ 76 25 81 (Leire).

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Hildakoak**

*Tomas Garitano Areitio*  
maiatzak 23, 47 urte

**Jaiotakoak**

*Aste bonetan epaitegian ez da jaiotakoen berri izan*

Atseden zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

**EZPELETA**  
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**ZUBIETA**

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



# BERGARAKO

## OSASUN Gida

### ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ..... ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. .... ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde 28. .... ☎ 76 27 97

### ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo, 4 1.B. .... ☎ 76 32 06

### BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo, 4 1.B. .... ☎ 76 32 06

### DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. .... ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. .... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale, 1 1.C. .... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. .... ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta, 3 2.B. .... ☎ 76 38 54

### HAGIN KLINIKA:

- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta, 6 2. (Lehen notaria zegoen tokian). .... ☎ 76 05 77

### MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi, 1 2. .... ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain, 5 2. E. .... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. .... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka, 7 3. A. .... ☎ 76 51 18

### MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain, 3 1.B. .... ☎ 76 37 50

### PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotzizitatea) - S. Arrieta, 3 2.E. .... ☎ 76 26 42

### PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. .... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. .... ☎ 76 41 32

### PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza, 2 1. ezk. .... ☎ 76 26 64

### PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, pskimotrizitatea). .... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 30 76